

DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN EBALUAKETA

I. KONTROLA ETA SEGIMENDUA

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren kontrola eta segimendua urtero egingo da bi alderditan:

Emandako dirulaguntzen kontrol ekonomiko-finantzarioa, zeina Udaleko Kontu-hartzailezari agindua baitago eta indarreko legerian jasotako baldintzetan egingo baita.

Planaren kontrola eta segimendua, zeina dirulaguntza ematen duten sail bakoitzaren teknikari arduradunak egingo baitu urtero. Hurrengo ekitaldiko lehen lauhilekoan justifikazio-memoria bat egingo da ondorengo zehaztapenekin:

- Helburua, erakunde onuraduna eta diruz lagundutako zenbatekoa.
- Dirulaguntza mota eta lerro bakoitzari buruzko informazioa, non emandako dirulaguntzak, justifikatuak, uko egindakoak eta ordaindutakoak (edo ordaintzeko prozeduran daudenak) jasoko baitira.
- Haien helburu espezifikoek, lortze-epearen betetze-maila, diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina zehaztuz.
- Benetako kostuak, aurreikusi direnekiko.
- Ondorioak edo balorazio orokorra lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidez kotitasunari buruz.
- Hurrengo Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

ERANSKINA



| LERRO ESTRATEGIKOA | HEZKUNTZA |
|--|--|
| PROGRAMA | 326.00 Hezkuntzako zerbitzu osagarriak |
| 1. Helburua | 2022-2023 ikasturtean, Urnietan talderik egon ez delako, ikastera Buruntzaldeko beste herri bateko HHI zentro batera joan behar izan duten ikasle urnietarrei kanpora joate horrek eragin dien gastua arintzeko diru laguntzak ematea. |
| 2. Onuraduna | Buruntzaldeko HHI-EPA zentro bateko ikasleak. |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Konkurrentzia• Onartutako kantitatea: 212,16 €• Ordaindutako kantitatea: 212,16 €• Zuritutako kantitatea: 212,16 €• Uko egindako kantitatea: 0 €• Itzulitako kantitatea: 0 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | 5 herritarrek eskatu eta jaso dute dirulaguntza. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontuan 1.200,00 € zeuden, eta 212,16 € soilik banatu da. |
| 6. Ondorioak: | <p>Bi faktore egon dira aurrekontuan zegoen zenbatekoaren eta banatu den kopuruaren arteko aldea eragin dutenak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Dirulaguntza eskatzeko aukera zuten hainbat herritarrek ez dute eskatu. 18 herritarrek zuten aukera, eta 5ek bakarrik eskatu dute.- Dirulaguntzen zenbatekoak kalkulatzeko erabiltzen den MUGI sistemako tarifa 2023an % 50era jaitsi zen, 0,96 €tik 0,48 €ra. <p>Ikasle guztiek eskatu balute dirulaguntza, eta 2022ko MUGIko tarifa hartuz gero, 1.288,32 €ko kopurua aterako litzatekeen. Dirulaguntza programa honekin jarraitzea egokia da, urnietarrek HHIko ikasketak egiteko aukera izatea garrantzitsua delako.</p> |
| 7. Proposamenak | HHI zentroko ikasleen profila zein den ikusita eta informazioa ikasle urnietar guztiengana iristeko ahalegina egingo dela kontuan izanda, aurrekontuko partida mantentzea komenigarria dela ikusi da. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0440 481 326 00 01 2023 (1111) HHI bidaiak 1.200,00€ |



| LERRO ESTRATEGIKOA | HEZKUNTZA |
|--|--|
| PROGRAMA | 326.00 Hezkuntzako zerbitzu osagarriak |
| 1. Helburua | 2023-2024 ikasturtearen hasieran HHI zentroak eskaintzen dituen ikasketei buruzko publizitatea egitea Urnietan, esku-orri bat banatuz herriko postontzi guztietan. |
| 2. Onuraduna | Hernaniko HHI-EPA ikastetxea. |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Izenduna• Onartutako kantitatea: 210,54 €• Ordaindutako kantitatea: 210,54 €• Zuritutako kantitatea: 210,54 €• Uko egindako kantitatea: 0 €• Itzulitako kantitatea: 0 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Esku-orria 2023ko irailean banatu da herriko postontzietan. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontuan 250,00 € zeuden, eta 210,54 €ko dirulaguntza eman da. |
| 6. Ondorioak: | Herritarrek eskualdeko HHI ikasketen informazio zehatza eta zuzena jasotzeko aukera izaten dute modu honetan. 2022-2023 ikasturtean gutxienez 18 herritarrek egin dituzte ikasketak Hernaniko ikastetxean. |
| 7. Proposamenak | Ikasle urnietarren kopurua ikusirik, aurrekontuko partida mantentzea komenigarritzat jotzen da. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0440 481 326 00 02 2023 (2866) HHI zentroari dirulaguntza 250,00€ |



| LERRO ESTRATEGIKOA | HEZKUNTZA |
|--|--|
| PROGRAMA | 326.00 Hezkuntzako zerbitzu osagarriak |
| 1. Helburua | Euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko, eta prebentzioa eta bizikidetzaz lantzeko jarduerak diruz laguntzea. Horiez gain, 2023an egindako hitzarmenaren eguneratzearen ondorioz, ikastetxean egiten diren sexuen hezkuntza, hezkidetzaz eta tratu onen programak ere diruz laguntzea. |
| 2. Onuraduna | Egape HLH ikastetxea. |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 20.945,00 €• Ordaindutako kantitatea: 16.756,00 €• Zuritutako kantitatea: 2024-06-30erako zuritu behar du.• Uko egindako kantitatea: 0 €• Itzulitako kantitatea: 0 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Hainbat programa abian jarri dira ikasturte hasieratik, eta zuriak aurkezten denean neurtuko da horien betetze maila. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontuan dagoen kopuru osoa gastatzea aurreikusten da. |
| 6. Ondorioak: | Ikastetxeak herriko haur, gaztetxo eta gazteen heziketan parte hartzen duten eragile ezinbestekoak dira, eta urteak dira Urrietako ikastetxeen eta Udalaren artean elkarlanean garatzen direla goian aipaturiko alderdiak lantzeko hainbat egitasmo. |
| 7. Proposamenak | Hitzarmenaren iraunaldia kontuan izanik (2024ko uztaila), 2024ko urrian hitzarmen berria sinatzea. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0440 481 326 00 05 2023 (2764) Egape LH 17.400,00€ |



| LERRO ESTRATEGIKOA | HEZKUNTZA |
|--|--|
| PROGRAMA | 326.00 Hezkuntzako zerbitzu osagarriak |
| 1. Helburua | Euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko, eta prebentzioa eta bizikidetzaz lantzeko jarduerak diruz laguntzea. Horiez gain, 2023an egindako hitzarmenaren eguneratzearen ondorioz, ikastetxean egiten diren sexuen hezkuntza, hezkidetzaz eta tratatu onen programak ere diruz laguntzea. |
| 2. Onuraduna | Egape DBH ikastetxea. |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 8.125,00 €• Ordaindutako kantitatea: 6.500,00 €• Zuritutako kantitatea: 2024-06-30erako zuritu behar du.• Uko egindako kantitatea: 0 €• Itzulitako kantitatea: 0 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Hainbat programa abian jarri dira ikasturte hasieratik, eta zuriak aurkezten denean neurtuko da horien betetze maila. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontuan dagoen kopuru osoa gastatzea aurreikusten da. |
| 6. Ondorioak: | Ikastetxeak herriko haur, gaztetxo eta gazteen heziketan parte hartzen duten eragile ezinbestekoak dira, eta urteak dira Urniestako ikastetxeen eta Udalaren artean elkarlanean garatzen direla goian aipaturiko alderdiak lantzeko hainbat egitasmo. |
| 7. Proposamenak | Hitzarmenaren iraunaldia kontuan izanik (2024ko uztaila), hitzarmenaren berriztapena. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0440 481 326 00 06 2023 (2765) Egape BH 4.500,00€ |



| LERRO ESTRATEGIKOA | HEZKUNTZA |
|--|--|
| PROGRAMA | 326.00 Hezkuntzako zerbitzu osagarriak |
| 1. Helburua | Euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko, eta prebentzioa eta bizikidetzaz lantzeko jarduerak diruz laguntzea. Horiez gain, 2023an egindako hitzarmenaren eguneratzearen ondorioz, ikastetxean egiten diren sexuen hezkuntza, hezkidetzaz eta tratu onen programak ere diruz laguntzea. |
| 2. Onuraduna | Salestarrak Magale ikastetxea. |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 22.043,00 €• Ordaindutako kantitatea: 17.634,40 €• Zuritutako kantitatea: 2024-06-30erako zuritu behar du.• Uko egindako kantitatea: 0 €• Itzulitako kantitatea: 0 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Hainbat programa abian jarri dira ikasturte hasieratik, eta zuriak aurkezten denean neurtuko da horien betetze maila. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontuan dagoen kopuru osoa gastatzea aurreikusten da. |
| 6. Ondorioak: | Ikastetxeak herriko haur, gaztetxo eta gazteen heziketan parte hartzen duten eragile ezinbestekoak dira, eta urteak dira Urrietako ikastetxeen eta Udalaren artean elkarlanean garatzen direla goian aipaturiko alderdiak lantzeko hainbat egitasmo. |
| 7. Proposamenak | Hitzarmenaren iraunaldia kontuan izanik (2024ko uztaila), hitzarmenaren berriztapena. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0440 481 326 00 04 2023 (2763) Salesiar ikastetxeak 5.600,00€ |



| LERRO ESTRATEGIKOA | HEZKUNTZA |
|--|--|
| PROGRAMA | 326.00 Hezkuntzako zerbitzu osagarriak |
| 1. Helburua | Urnietako ikastetxeetako guraso elkarteek antolaturiko hezkuntza alorreko jarduera programak finantzatzeko dirulaguntzak ematea. |
| 2. Onuraduna | Herriko ikastetxeetako guraso elkarteak. |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Konkurrentzia• Onartutako kantitatea: 4.661,00 €• Ordaindutako kantitatea: 4.661,00 €• Zuritutako kantitatea: 4.661,00 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzultako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Lau guraso elkarteek eskatu dute dirulaguntza, eta oinarrietan zehaztutako baldintzak bete dituzte. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontuan 4.700,00 € zeuden, eta 4.661,00 €ko dirulaguntza eman da. |
| 6. Ondorioak: | Herriko ikastetxeetako ikasle nahiz gurasoei zuzendutako hainbat jarduera aurrera eramaten dira, heziketa arloari hedapena handiagoa ematea ahalbidetuz. |
| 7. Proposamenak | Ikasle urnietarren kopurua ikusirik, aurrekontuko partida eta konkurrentzia bidezko deialdiko eranskina mantentzea komenigarritzat jotzen da. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0440 481 326 00 10 2023 (3212) Guraso elkarteak dirulaguntza 4.700,00€ |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|--|--|
| PROGRAMA | 334.00 Kultura |
| 1. Helburua | Jaietan nahiz urteko beste edozein garatzen diren kultura, aisia, kirola, haurreria eta gazteriarekin loturiko ekintzak eta jarduerak finantziatzeko dirulaguntzak eskatu eta jasotzeko oinarriak. |
| 2. Onuraduna | Irabazi asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoa, edo dirulaguntza jaso izana legitimatzen duen egoeran dagoena |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Konkurrentzia• Onartutako kantitatea: 1.500 €• Ordaindutako kantitatea: 1.500,00 €• Zuritutako kantitatea: 1.500,00 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Eskatzaile bakarra izan da. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontuan 2.700,00 € zeuden, beraz, aldea 1.200,00 eurokoa izan da. |
| 6. Ondorioak: | Urtero jasotzen dira eskaerak, beraz, jarraitzea bidezkoa ikusten da. |
| 7. Proposamenak | Bere honetan jarraitzea. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.334.00.01 2023 (494) Ekintza sozio-kulturalak 2.700,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|--|---|
| PROGRAMA | 334.00 Kulturaren sustapena |
| 1. Helburua | Goiburu auzoaren garapen integrala, bere bizi-lagunen eta udalerriko hirigunekoaren eta erakunde komunen artean dituzten harremanak sendotzea. |
| 2. Onuraduna | Xoxoka Goiburuko Auzo Elkarteak |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 9.000,00 € + 1.391,00€ (luzapena)• Ordaindutako kantitatea: 6.750,00€• Zuritutako kantitatea: Zuritu gabe• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Auzotarren parte-hartzea oso ona izan zen antolatutako jardueretan. Gainera, hitzarmen aldaketa bat eskatu dute 1.391€ gehiago eskatzeko, ekitaldi gehiago finantziatu ahal izateko. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusitako diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena 9.000,00 € + 1.391,00€ (luzapena) Benetako kostua: Zuritu gabe |
| 6. Ondorioak: | Helburuak bere osotasunean bete dira, Xoxoka Goiburu Auzo Elkarteak antolaturiko jaiak eta jarduerak garrantzia handia dute herri mailan. Hitzarmenarekin jarraitzea bidezkoa da. |
| 7. Proposamenak | Elkarteak bere funtzionamendua bi ataletan banatu nahi du, alde batetik jaiak eta bestetik urteko jarduerak. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.334.00.13 2023 (2521) Xoxokako Auzo Elkarteak 9.000,00 € + 1.391,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KIROL SUSTAPENA |
|--|---|
| PROGRAMA | 341.00 Kirolaren sustapena |
| 1. Helburua | Hainbat kirolen praktika bultzatzea, hala nola, ehiza modalitate ezberdinak eta bola-jaurtialdia. |
| 2. Onuraduna | Santa Kruz Elkarte |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 1.150,00 €• Ordaindutako kantitatea: 862,50 €• Zuritutako kantitatea: Zuritu gabe• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzultzeko kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Aurreikusitako ekintzak antolatu dira, inongo murrizketarik gabe. Ehiza modalitate ezberdinak eta bolotako jardunaldiak. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 1.150,00 € Benetako kostua: Zuritu gabe € |
| 6. Ondorioak: | Herrian errotuta dauden kirolak sustatzen ditu, urteetan antolatu diren ekintzak dira eta harrera ona izan dute ehiza eta bolotako gustuko dituztenen artean. |
| 7. Proposamenak | Egokia da aurrera jarraitzea. Herrian errotutako ekintzak dira. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.341.00.17 2023 (2525) Santa Kruz Elkarte 1.150,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|--|--|
| PROGRAMA | 334.00 Kulturaren sustapena |
| 1. Helburua | Aisialdi eskaintza osasuntsua, parekidea, inklusiboa, euskalduna eta sortzailea sustatzea. |
| 2. Onuraduna | Innsmoutheko Biztanle Rol Jokoen Elkarte |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 800,00 €• Ordaindutako kantitatea: 800,00 €• Zuritutako kantitatea: 800,00 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzultzeko kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Aurtengo jardunaldietan parte hartzea mantendu da eta ekintza berriak egin dira. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 800,00 € Benetako kostua: 988,43 € |
| 6. Ondorioak: | Programarekin jarraitzeko asmoa dago. |
| 7. Proposamenak | Egokia da aurrera jarraitzea. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.337.24.12 2023 (2520) Innsmouth elkarte 800,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|--|---|
| PROGRAMA | 334.0 Kulturaren sustapena |
| 1. Helburua | Herriko gazteen dinamika indartzea eta sendotzea. |
| 2. Onuraduna | Poxta Zahar Urrietako Gazte kuadrilla |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 9.000,00 €• Ordaindutako kantitatea: 6.750,00 €• Zuritutako kantitatea: Zuritu gabe• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzultzeko kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Gazteen parte-hartzea oso ona izan zen antolatutako jardueretan, baina zaila da kopuru zehatza ematea. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 9.000,00 € Benetako kostua: zuritzeko |
| 6. Ondorioak: | Gazteen dinamizazioa errazago lortzen da gazteek kudeatutako elkarte baten bidez. Helburuak bete dira eta bide horretan jarraitzea proposatzen da. |
| 7. Proposamenak | Egokia da aurrera jarraitzea. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.334.00.08 2023 (2539) Poxta Zahar Gazte koadrilen elkarte 9.000,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | EUSKARA SUSTAPENA |
|--|---|
| PROGRAMA | 335.00 Euskararen sustapena |
| 1. Helburua | Kultur eta hizkuntza ondarearen zaintza, euskal kultura eta euskara zehazki. |
| 2. Onuraduna | Erroitz Baltzu Mugatua |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 36.000,00€• Ordaindutako kantitatea: 32.400,00€• Zuritutako kantitatea: 36.000,00 € (2024-01-30ean) |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Aiurri aldizkariaren 4000-5000 ale herri guztian zehar banatuak. Herriko postontzi guztietan banatzen da astekaria, eta zenbait udal eraikinetan ere bai. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 36.000,00€ Benetako kostua: zehazteko |
| 6. Ondorioak: | Helburua bere osotasunean betetzen ari da, Aiurri euskarazko komunikabidearen bitartez euskara bultzatzen da eta baita kulturaren beste hainbat arlo ere. Astekaria tokiko informazioa euskaraz zabaltzeko baliabide oso egokia da, herri mailako informazioaren erreferentea. Ondorioz, dirulaguntza programa honekin jarraitzea bidezkoa da. Hitzarmena 2023ko abenduaren 31an iraungi da, eta datozen urteetarako berria sinatu beharko da. |
| 7. Proposamenak | Hitzarmen berria diseinatu eta sinatzea. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0440.481.335.00.06 2023 (1159) Prentsa euskaraz 36.000,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|--|---|
| PROGRAMA | 334.00 Kulturaren sustapena |
| 1. Helburua | Euskal dantza tradizionala, kultura ondare bezala zaindu eta herriko jaietan, euskal musika tradizionalan eta dantza emanaldietan sustatzea. |
| 2. Onuraduna | Egape Dantza Taldea |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 6.300,00€• Ordaindutako kantitatea: 4.725,00€• Zuritutako kantitatea: Zuritu gabe• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzultzeko kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Partaideak: jende asko mugitzen dute antolatutako ekintza guztietan. Olentzerok ere gero eta indar handiagoa du |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 6.300,00€ Benetako kostua: Zuritu gabe |
| 6. Ondorioak: | Helburuak bere osotasunean bete dira, euskal dantzak garrantzia handia du herri mailan. Hitzarmenarekin jarraitzea bidezkoa da. |
| 7. Proposamenak | Egokia da aurrera jarraitzea. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.334.00.03 2023 (2486) Egape Dantza Taldea 6.300,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|---|---|
| PROGRAMA | 337.10 Kultura sustapena |
| 1. Helburua | Zahartzarorako ohitura osasuntsu eta jarrera baikorrak bultzatzea. |
| 2. Onuraduna | Dendaberi Elkarte |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 21.600,00 € + 8.500,00 € (jubilatuen eguna)• Ordaindutako kantitatea: 16.200,00 € + 8.500,00 €• Zuritutako kantitatea: 8.500,00 €, bestea zuritu gabe• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzultzeko kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Adineko pertsonen sozializatzeko dituzten beharrei erantzuten die elkartearen dinamika eta multzo handi batengana iristen da. Jubilatuen festa diruz laguntzeko hitzarmenari eranskin bat gehitu zitzaion, egun arrakastatsua burutu zuten, giro onean eta partaidetza handiarekin. |
| 5. Finantzatzeko aurre ikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 21.600,00 € Benetako kostua: Guztiz zuritu gabe |
| 6. Ondorioak: | Parte hartze aktiboa bultzatu eta sustatzeko, gune oso aproposa. |
| 7. Proposamenak | Beraiekin koordinazioa estutzen jarraitu behar du udalak. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0600.481.337.10.02 2023 (566) Zahar Etxea 21.600,00 € + 8.500,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|--|--|
| PROGRAMA | 334.00 Kulturaren sustapena |
| 1. Helburua | Jaietan nahiz urteko beste edozein garaitan garatzen diren kultura, aisia, kirola, haurreria eta gazteriarekin loturiko ekintzak eta jarduerak bultzatzea. |
| 2. Onuraduna | EPAE – Etxeberri plazako auzokideen elkartea |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 3.600,00 €• Ordaindutako kantitatea: 2.700,00 € -> Apirilean 3.600,00 € izango dira• Zuritutako kantitatea: 3.917,58 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Antolatutako ekintza guztietan gutxi gora behera 800 herritarrek hartu dute parte. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena 3.600,00 € Benetako kostua: 3.917,58 € |
| 6. Ondorioak: | Jarduera hauen bitartez, herriko gune zehatz batean hainbat kultur jardueraz gozatzeko aukera sortu da, auzokideen eta gainontzeko herritarren arteko bizikidetzaren sendotuz. Gainera, auzotik kanpoko ekintzetan ere oso jarrera aktiboa dute. Aurten beraien dirulaguntzaren zati bat karpaa batean inbertitu dute, hori dela eta hitzarmen aldaketa bat burutu da 2.100,00 € inbertsio modura bideratu ahal izateko. |
| 7. Proposamenak | Kultur jarduerak bultzatzearen helburua lortu da eta hitzarmenarekin jarraitzea bidezkoa da. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.334.00.19 2023 (2868) -> 1.500,00 € (ekintzak) 1 0410.781.334.00.19 2023 -> 2.100,00 € (inbertsioa, karpaa) Etxeberri Plazako Auzokideen Elkartea |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|--|---|
| PROGRAMA | 334.00 Kulturaren sustapena |
| 1. Helburua | Extremadurako dantza tradizionala, kultura ondare bezala zaindu eta herriko jaietan, Extremadurako musika tradizionalan eta dantza emanaldietan sustatzea. |
| 2. Onuraduna | Centro Cultural Extremeño |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 900,00 €• Ordaindutako kantitatea: 900,00 €• Zuritzeko kantitatea: 900,00 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Ikusleak: zenbaki zehatzik gabe, baina asko. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 900,00 € Benetako kostua: 1.551,98 € |
| 6. Ondorioak: | Helburuak bere osotasunean bete dira. |
| 7. Proposamenak | Hitzarmenarekin jarraitzea bidezkoa da. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.334.00.14 2023 (2522) Centro Cultural Extremeño 900,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|--|--|
| PROGRAMA | 334.00 Kulturaren sustapena |
| 1. Helburua | Jaietan tanborrada emanaldiak sustatzea |
| 2. Onuraduna | Urdanbor tanborrada elkarte |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 3.800,00 €• Ordaindutako kantitatea: 3.800,00 €• Zuritutako kantitatea: 3.800,00 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Antolatutako ekintzan herritarrek hartu dute parte. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena 3.800,00 € Benetako kostua: 3.800,00 € |
| 6. Ondorioak: | Kultur jarduerak bultzatzearen helburua lortu da . |
| 7. Proposamenak | Hitzarmenarekin jarraitzea bidezkoa da. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.334.00.10 2023 (2541) Urdanbor tanborrada Elkarte 3.800,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|--|--|
| PROGRAMA | 334.00 Kulturaren sustapena |
| 1. Helburua | Jaietan tanberrada emanaldiak sustatzea |
| 2. Onuraduna | Maria Rivier Guraso elkarte |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 1.350,00 €• Ordaindutako kantitatea: 1.350,00 €• Zuritutako kantitatea: 2.130,36 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Antolatutako ekintzetan herritarrek hartu dute parte. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena 1.350,00 € Benetako kostua: 2.130,36 € |
| 6. Ondorioak: | Kultur jarduerak bultzatzearen helburua lortu da. |
| 7. Proposamenak | Hitzarmenarekin jarraitzea bidezkoa da. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.334.00.16 2023 (2524) Maria Rivier Guraso Elkarte 1.350,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|--|--|
| PROGRAMA | 334.00 Kulturaren sustapena |
| 1. Helburua | 50. Urteurreneko ekitaldia aurrera eramatea |
| 2. Onuraduna | Txanbolin Urrietako Txistulari Banda |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena:• Onartutako kantitatea: 13.000,00 €• Ordaindutako kantitatea: 13.000,00 €• Zuritutako kantitatea: 13.322,50 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Ekitaldia urriaren 21ean burutu zen. Eguraldi txarreatik polikiroldegira pasa zen eta 500 ikusletik gora izan zituen eta eszenatoki gainetik Urrietako hainbat eta hainbat artista pasa ziren. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 13.000,00 € Benetako kostua: 13.322,50 € |
| 6. Ondorioak: | Ekintza bikaina izan zen, baina puntuala denez ez du jarraituko. |
| 7. Proposamenak | |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.334.00.20 2023 (3363) Txanbolin 7.000,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|---|--|
| PROGRAMA | 334.00 Kulturaren sustapena |
| 1. Helburua | Jaietan euskal kultura eta bereziki euskal kantak biziberritzea |
| 2. Onuraduna | Mantale Kultur Elkarte |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena:• Onartutako kantitatea: 2.000,00 €• Ordaindutako kantitatea: 1.788,53 €• Zuritutako kantitatea: 1.788,53€• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Festetan kantu bazkari arrakastatsua burutu zuten, giro onean eta partaidetza handiarekin |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta arteko aldearen kostuen | Aurreikuspena 2.000,00 € Benetako kostua: 1.788,53 € |
| 6. Ondorioak: | Herriko festetan ekintza ederra antolatu zuten. |
| 7. Proposamenak | Hurrengo urtean helburu berarekin beste hitzarmen bat sinatzea. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0410.481.334.00.02 2023 (2734) Sozio-Kultur Jarduera Bereziak 7.000,00 € |



| | EUSKARAREN NORMALKUNTZA |
|--|---|
| PROGRAMA | 335.00 Euskara |
| 1. Helburua | 2022-2023 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa euskaraz egin duten eta Urnietan erroldatuta daudenei ordaindutako matrikularako dirulaguntzak ematea. |
| 2. Onuraduna | Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroetako ikasleak. |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Konkurrentzia• Onartutako kantitatea: 675,00 €• Ordaindutako kantitatea: 675,00 €• Zuritutako kantitatea: 675,00 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoan betetze maila | 3 eskatzaile izan dira, eta biek jaso du dirulaguntza. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontuan 750,00 € zeuden, beraz, aldea 75,00 eurokoa izan da. |
| 6. Ondorioak: | Aurrekontuko partida aurreikustean 3 herritar diruz laguntzeko aukera jaso zen. |
| 7. Proposamenak | Urtero jasotzen dira eskaerak, beraz, jarraitzea bidezkoa ikusten da. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0440.481.335.00.02 2023 (2445) Begiraleei dirulaguntza 750,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | EUSKARAREN NORMALKUNTZA |
|--|---|
| PROGRAMA | 335.00 Euskara |
| 1. Helburua | 2022-2023 ikasturtean, euskaltegi homologatu batean euskara ikasi duten herritarrei horrek eragiten dien gastua arintzeko diru laguntzak ematea. |
| 2. Onuraduna | Euskaltegietako ikasleak. |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Konkurrentzia• Onartutako kantitatea: 19.793,63 €• Ordaindutako kantitatea: 19.793,63 €• Zuritutako kantitatea: 19.793,63 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | 60 dirulaguntza eskaera izan dira, eta 49 dirulaguntza eman dira. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontuan 27.000,00 € zeuden, beraz, aldea 7.206,37 €-koa izan da. |
| 6. Ondorioak: | <p>Dirulaguntza programa honekin jarraitzea bidezkoa da, eta beste hainbat erakunderekin bat eginez (HABE, Aldundia), euskara-ikaskuntza doakoa izateko bidean jarraitzea ere bai.</p> <p>Dirulaguntza eskatzeko epea eta ebazteko unea atzeratzeak diru-baliabideak optimizatzea ekarri du, HABEren dirulaguntzen banaketaren ondoren onartu direlako udalarenak.</p> <p>Euskara ikastea doakoa izan dadin egindako ahaleginari esker, 60 ikasle urnietarretatik 23ren kasuan lortu da helburua, HABEren eta Udalaren dirulaguntzak kontuan izanik.</p> <p>Premia bereziak dituzten herritarren kasuan, 3 herritarren eskaerari erantzun ahal izan zaie.</p> <p>Azkenik, euskara-ikasleei dirulaguntza desberdinei buruzko informazio garbia helarazteko 2023an egindako saiakera arrakastatsua izan da, euskara ataleko eta Bertaneko lankideen eta herriko euskaltegiko arduradunen artean koordinatuta.</p> |
| 7. Proposamenak | 2024ari begira, hobekuntza nagusi bat izango da: premia bereziak dituzten ikasle-multzoarengana iristea, aukera horri buruzko informazio garbia jaso dezaten. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0440.481.335.00.03 2023 (810) Euskaltegiko beka 27.000,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | EUSKARAREN NORMALKUNTZA |
|--|---|
| PROGRAMA | 335.00 Euskara |
| 1. Helburua | 2023an saltokiaren errotulua euskaraz edo euskaraz eta gazteleraz jarri duten herriko establezimenduentzako dirulaguntzak ematea. |
| 2. Onuraduna | Urnietako establezimenduak. |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Konkurrentzia• Onartutako kantitatea: 150,25 €• Ordaindutako kantitatea: 150,25 €• Zuritutako kantitatea: 150,25 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoan betetze maila | Dirulaguntza eskaera bat jaso da. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontuan 300,00 € zeuden. |
| 6. Ondorioak: | la urtero jasotzen dira eskaerak. |
| 7. Proposamenak | Jarraitzea bidezkoa ikusten da. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0440.481.335.00.08 2023 (2519) Errotuluen dirulaguntza 300,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | EUSKARAREN NORMALKUNTZA |
|--|---|
| PROGRAMA | 335.00 Euskara |
| 1. Helburua | Urnietan euskarako eskolak eskainiko dituen zentro homologatua izatea. |
| 2. Onuraduna | Euskaraz Koop E |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 12.084,60 € (9.600 € dirutan + 2.484,60 € espezietan)• Ordaindutako kantitatea: 9.600,00 €• Zuritutako kantitatea: 9.600,00 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | 54 herritar dira ikasturte honetan Urrietako AEK euskaltegian euskara ikasten ari direnak. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontuan zeuden 9.600,00 €ak ordaindu dira. |
| 6. Ondorioak: | Dirulaguntza programa honekin jarraitzea egokia da, Urnietan euskaltegia izatea garrantzitsua delako. Indarrean dagoen hitzarmenak 2025eko uztailera arteko indarraldia du, bi urte gehiagoz luzatzeko aukerarekin. |
| 7. Proposamenak | |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0400.481.335.00.05 2023 (2482) Euskaltegia 9.600,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | EUSKARAREN NORMALKUNTZA |
|--|--|
| PROGRAMA | 335.00 Euskara |
| 1. Helburua | Bertso-eskola antolatzea. |
| 2. Onuraduna | Gipuzkoako Bertsozale Elkarte |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 1.526,94 €• Ordaindutako kantitatea: 1.145,21 €• Zuritutako kantitatea: 0,00 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoan betetze maila | 6 herritar dira ikasturte Bertso-eskola taldean daudenak |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 1.526,94 € Benetako kostua: zuriketa epea 2024-07-30 |
| 6. Ondorioak: | Dirulaguntza programa honekin jarraitzea egokia da, Urnietan helduen bertso-eskola talde bat izatea garrantzitsua delako. Indarrean dagoen hitzarmenak 2025eko uztailera arteko indarraldia du, luzatzeko aukerarik gabe. |
| 7. Proposamenak | |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0420.226.335.00.06 2023 (2751) Bertsoeskola 1.355,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KULTURA SUSTAPENA |
|--|---|
| PROGRAMA | 337.24 Gazteen sustapena |
| 1. Helburua | Aisialdi eskaintza osasuntsua, parekidea, inklusiboa, euskalduna eta sortzailea sustatzea. |
| 2. Onuraduna | Bosko Anitz Aisialdi Taldea |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 6.800,00 €• Ordaindutako kantitatea: 5.100,00 €• Zuritutako kantitatea: Zuritu gabe• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzulitako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | 360 partaide antolatutako ekintza guztietan |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 6.800,00 € Benetako kostua: Zuritu gabe |
| 6. Ondorioak: | Aisialdi hezitzailea eta partehartzailea garatzen dute. Herrian larunbat arratsaldero gaztetxo askorentzat galdu ezin den plana da. |
| 7. Proposamenak | Egokia da babesten jarraitzea. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0430.481.337.24.01 2023 (1109) Bosko Anitz Aisialdi Taldea 6.800,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KIROLAREN SUSTAPENA |
|--|--|
| PROGRAMA | 341.00 Kirolaren sustapena |
| 1. Helburua | Herrian xakea sustatzea, zale berriak erakartzea, herrian lehiaketak antolatu eta herri kanpoko lehiaketetan parte hartzea. |
| 2. Onuraduna | Eguzki Xake Taldea |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 325,00 €• Ordaindutako kantitatea: 0,00 €• Zuritutako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Ez dute inongo ekintzarik aurrera eraman, ez dute partehartzaile federaturik. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 0,00 € Benetako kostua: 0,00 € |
| 6. Ondorioak: | Hitzarmen honen inguruan taldeko arduradunarekin ildoak zehaztu behar dira. |
| 7. Proposamenak | Aztertu beharra dago elkartearekin hitzarmenarekin jarraitu behar den. 2023an ez dute ekintzarik antolatu. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0420.481.341.00.02 2023 (1504) Eguzki Xake Taldea 325,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KIROLAREN SUSTAPENA |
|--|---|
| PROGRAMA | 341.00 Kirolaren sustapena. |
| 1. Helburua | Urdetan kalitate handiagoko kirola sustatzea. |
| 2. Onuraduna | Urdetako Kirol Kluba - UKE |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 48.000,00 €• Ordaindutako kantitatea: 48.000,00 €• Zuritutako kantitatea: 166.968,78 €• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzultako kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Partaideak: 375-400 inguruko lizentzia kopurua dago kirol modalitate guztiak kontutan hartuta. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 48.000,00 € Benetako kostua: 166.968,78 € |
| 6. Ondorioak: | Helburua egokia da, gazteen artean kirola barneratzea lortu dute eta herri mailan talde bakarra bezala jardutea ere. Egokia da programarekin jarraitzea. |
| 7. Proposamenak | Kirolarien partaidetza ikusita berdina jarraitzea. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0420.481.341.00.00 2023 (514) U.K.E. 48.000,00€ |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KIROLAREN SUSTAPENA |
|--|--|
| PROGRAMA | 341.00 Kirolaren sustapena. |
| 1. Helburua | Herrian kirol jarduerak sustatzea, motor kirolari bere tartea emanez. |
| 2. Onuraduna | Xoxoka Motor Kirol Kluba |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 5.000,00 €• Ordaindutako kantitatea: 3.750,00 €• Zuritutako kantitatea: Zuritu gabe• Uko egindako kantitate: 0,00 €• Itzultzeko kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Federazioko egutegian berriro sartu dira eta kirol ekitaldiak martxan dituzte. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurreikuspena: 5.000,00 € Benetako kostua: Zuritu gabe |
| 6. Ondorioak: | Helburu egokia da, motorrarekin lotutako kirol ekintzak aurrera eramateko. Pandemiaren ondoren arazo asko dituzte ordea ekintzak antolatzen. |
| 7. Proposamenak | Hitzarmenarekin aurrera jarraitzea egokia da, beraien arazoak ordea kontuan hartu behar dira. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0420.481.341.00.04 2023 (2750) Xoxoka Motor Kirol Kluba 5.000,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KIROLAREN SUSTAPENA |
|--|---|
| PROGRAMA | 341.00 Kirolaren sustapena. |
| 1. Helburua | Mendizaletasunak garrantzia handia izanik herriko kirol jardueran, elkarrearen bitartez sustatzea. |
| 2. Onuraduna | Zanpatuz Mendi Elkarte |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 3.000,00 €• Ordaindutako kantitatea: 2.250,00 €• Zuritutako kantitatea: Zuritu gabe• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzultzeko kantitatea: 0,00 |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Hitzarmenaren jarraipenean planteatutako ekintza gehienak aurrera eraman dituzte. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontua: 3.000,00 € Kostua: Zuritu gabe |
| 6. Ondorioak: | Mendizaletasuna ikuspegi desberdinetatik landu da, herritarrak mendiaz era desberdinetan gozatu ahal izan duelarik. Garrantzitsua ere etorkizunera begira, umeekin mendizaletasuna txertatzeko antolatutako ekintza. |
| 7. Proposamenak | Hitzarmenarekin jarraitzea, mendizaletasuna sustatzeko Urnietarren artean. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0420.481.341.00.03 2023 (2488) Zanpatuz 3.000,00€ |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KIROLAREN SUSTAPENA |
|--|--|
| PROGRAMA | 341.00 Kirolaren sustapena. |
| 1. Helburua | Urnietarren artean txirrindularitza sustatzea elkartearen bitartez. Txirrindularitzak duen garrantzia bideratu elkartearen bidez. |
| 2. Onuraduna | Andoingo Txirrindularitza eskola |
| 3. Diru laguntza mota | <ul style="list-style-type: none">• Hitzarmena• Onartutako kantitatea: 2.500 €• Ordaindutako kantitatea: 1.875,00 €• Zuritutako kantitatea: Zuritu gabe• Uko egindako kantitatea: 0,00 €• Itzultzeko kantitatea: 0,00 € |
| 4. Helburu espezifikoaren betetze maila | Hitzarmenaren jarraipenean planteatutako ekintza gehienak aurrera eraman dituzte. Aldaketak egin direnean modu egokian eman dira aurrera. Zailtasunak Sanmioletako kriteriuma egiteko, 2023an ez zen egin. |
| 5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuen eta kostuen arteko aldea | Aurrekontua: 2.500,00 € Kostua: Zuritu gabe |
| 6. Ondorioak: | Txirrindularitzak duen zaletasuna Urnietan kontutan izanda ekintza ezberdinak eman dira, taldeak antolatuta. Herriko jaietan egin dira eta partehartze ugari izan dira, kirolari eta ikusle goaren artean. |
| 7. Proposamenak | Hitzarmenarekin jarraitzea, txirrindularitzaren sustapenarekin jarraitzeko. |
| 8. Aurrekontu-saila | 1 0420.481.341.00.05 2023 (2870) Andoingo Txirrindularitza eskola 2.500,00 € |



| LERRO ESTRATEGIKOA | KIROLAREN SUSTAPENA |
|--|---|
